

Pierre Topet-Etxahun (1786-1862)

## ETXAHUNEN SORTZEAREN BIGARREN MENDEURRENA DELA ETA...

*Donostian, Agorrilaren 22-an, 1986*

*Yon Etxaide Itharte*

Euskaltzaindiak lerro batzuk eskatu dizkit Barkoxtar koblakari hotsaundikoaz. Alegia, ni omen naiz, Etxahunez egin dudan lanagatik —Haritxelhar Maisu haundia aparte utzirik, noski— gai honetaz zerbait esatera behartuena. Baina, oren laurden bateko epea dut nik esanbeharrak adiarazteko, eta oren laurden batean ez dugu gauza haundirik esaterik. Gainera, tenorez jakinarazi bazidaten ere, ni lo egon naiz azkeneko uneraino, lan hau beti geroko utziz Axular haundiaren gomendioaren kontra eta Uztaila etorrita hilabeteko bakantzak lasai hartu ditut, hemeretzi egun Pirenetako Aran ibarreko mendi zokoak bisitatuz —ederrak zinez, *baina bihotzak dio: zoaz Euskalerrira*— eta etxerako itzulian hamabi egun Zube-roan pasatuz “Elizanbürü” (1730-ean eraikia) deritzan “etxalte-kanping” zoragarrian kokaturik, Altzürükü-Züharan, Etxahun gureak hain ezagunak zituèn mendiak, bazterrak eta “olhak” bisitatuz, hala nola Maidalena, Süstarri, Erretzü, Ahargo, Kanbillu, Gaztalondo, Malta (Etxahuniako hondakinetan, bere oroitarran otoitz bat eginaz), Abakia, Igelu, Ezkonditze, Otsogorrigaño, Phixtako olha eta Phixtako Turrusta, San Josefen ermita, Idorroki olha, Nabolegi eta Olhatzazarre olak, Naphaletik Etxekortiako olhara, Organbidexka-olha (Belhaudiko bortian), Holtzartetik Larrañera, Ahüzkiko iturria, Aphanizeko zelaiak, Behorlegiko gandorra, Biduze ibaiaren sortze-lekua, Ahüzki eta Donaisti artean, Kakuetako eta Ehüjarreko meharguneak eta Eraintzeko olhak, beren iturri fresko zoragarriarekin, Etxahunen Barkoxeko hilobia eta abar luze bat aurtengoak eta aitzin urtetakoak kontatuz. Halaber bisita leku izan ohi dugu ere “Itharte” etxaltea, Hamalauko gerlatik hustua eta orain “Prat” etxaldeko borda bilakatua, Xarrako udal-barrutian. Ene amaren arbasoak hemendik pasa ziren, noski, Erronkariko Bidankoze herrira. Zer esanik ez Etxahun Irurikoren “Etxahun koblakari” pastoralala (pastuala) ikusten izan ginela emaztea eta biok eta alaba ere bere lagunekin Barkoxen, Uztailaren 27-an.

Etxahunez mintzatuz orenak eta orenak egon gaitezke, libururik mardulena (lodiena) mamitu ere. Beraz, oren laurden bat oso denbora urria da Etxahunen bizitzan eta lanetan murgiltzeko. Haren bizia sakonki eta xeheki aztertu dute lehenik Larrasketek eta Lhandek, eta gero, berezi-bereiziki, Haritxelharrek. Beraz, nik esango dudan gauza bakarra hitzaldi labur honetan zera da: nola ezagutu nuen Etxahun Barkoxtarra eta zer lan egin dudan gure koblakariaz.

Etxahunen ezagutza Aita Lhanderi zor diot. Frankismoaren urterik beltzenetan eta gordinenetan, euskal-libururik inon aurkitzen ez zenean, aukera bat, okasione bat, sortu zitzaidan "Gure Herria" aldizkariaren zenbait ale erosteko, alegia, 1921, 1922, 1923, 1924, 1925, 1926 eta 1927, txukun eta egoki enkuadernaturik (relieturik) eta merke gainera, zeren euskal-liburua ez baitzen kotizatzen garai (denbora) triste haietan. Sal-tzaileak, zituèn euskal liburu guztiak gaintik kendu nahi zituen, zeren berari ez baitzitzazkion interesatzen eta aldi hartan euskal-liburuak edukitzea beldurgarri baitzen. Denok beldurrez bizi ginen, poliziak rejistru-ren bat eginda zer gerta ere... Eta horra non, "Gure Herria"ren 1923-garren urtean, gure Aita Lhande-Basagaitz ahortzi ezina mintzatu zen zabalki Etxahunez titulu honekintxe: "Le barde Etchahoun (1786-1862)". Hiru sailetan berezi zuen bere lana. Lehendabiziko sailean, solas-aitzin baten ondoren eta "La vie du poète" titulu nagusiaz, lehenbiziko atala ematen du "La triste enfance" titulupean (420-430 paiak). Bigarren zatia "Le Foyer malheureux" titulatzan du (492-496 pp.), eta hirugarrena (suite et fin) "La vie errante" (534-542 pp.). Aita Lhanderen lan honetan irakurri nuen lehenbiziko aldiz "Mündian malerusik" poemaren izena eta ondoren agertzen dituen bi hitz-neurtu hauek zartada izigarria egin zuten ene bihotzean:

*Hogei eta bi urthe bethe egünin  
Emazte bat hartü nin ene zorigaitzin.*

Irazlan honetan ikasi nuen, beraz, Graxi Pelento Etxahunen emaztearen berri, eta nor zituèn bere gurasoak "Bi berset dolorusik" poeman agertzen den ahapaldi dardargarri honen bitartez:

*Ene persegirazle lehen hatsarria (1) zer zen  
Eskapulareki (2) deiziet erranen:  
Aita batek zian taka (3) hori bere haurraren (4):  
Haren Filosomiako (5) amak enündila (6) sorthü ükhen.*

Halaber mintzo zaigu Lhande-Basagaitz Etxahunen lehen amodioaz, nahiz-eta neskatilaren izenik ez jakin (*Zazpi urte badizüt, ene khariua, /*

---

(1) Hasera, hasiera. (2) Eskrupuluarekin, eskrupulotsuki. (3) Defektu, akats. (4) Haurrantzat, haurranganako. (5) Fisionomía (antza, eitea). *Filosomiako*, testuan "F" maiuskularekin. (6) Testuan, hutsegitez: enünodila.

*Zütan ezarri niala ene amoriua*) eta baita aitak eta “egüzaitak” (aita pontekoak) ezarri zizkioten eragozpenak berak maite zuenarekin ezkon zedin, pobrea zelako, Etxahuniaren oinordekotza (primantza, primugoa) kentzea mehatxu eginaz.

Halaber aipatzen digu Lhandek Graxi Pelentorekin, hots, Dominika Haritxabalet, Santa-Graziko erretor(e) ospatsuaren iloba aberatsarekin egin zuen ezkontza bortxatua eta beronek erakarri zion bizitza zoritxarrekoa, eta gure koblariaren neurtitz unkigarriok aipatzen ditu:

*Jakin nianian zer nian erosi  
Nahi ükhen nian bortxaz kunbertirazi.*

Etxahunek, bortxaz, indarrez, gogorkeriaz, tratu txarrez alegia, nahi izan zuen “kunbertirazi” bere emaztea, baina honek salatu zuen bere senarra justiziaren aitzinean eta Agengo presondegian bi hilabetez preso sartzea ardietsi zuen.

Graxik, bestalde, ez zion leialtasunik gorde bere senarrari, Pierrari alegia, eta gordeka edo agirian Hegiaphalekin ibiltzen hasi zen eta “Mündian malerusik” poeman honela dio Musde Haritxabalet zuzenduz, hots, Graxi Pelentoren osaba apezari:

*Musde Haritxabalet, jaun erretora,  
Etzünin idükiten ogendant (1) illoba;  
Orai sogin ezazü: hor düzüla proba...*

Berehala, “lehen auzoko” amorantea, hots, Hegiaphaliakoa hiltzea pentsatzen du, baina gauetz bidera ateratzen zaiolarik, nahasmenez, konfusioz, Etxegoiheniako mutila hiltzen du eta hutsegite honek esanarazten dio minaren minez:

*Bestek eraman dik hik behar kolpia,  
Bena küpera diok orano hartzia (2).*

Beste abagune batez —dio Lhande-Basagaitzek—, etsai gorrotagarria tirokatzeko aukera, okasionea izan zuen, baina tiroak hutsegin zion. Preso harturik, Etxahunek ez zuen ukatu bere asmoa (xede). “Hil nahi zenuen, beraz?”, galdetzen dio jujeak (juezak) frantsesez. Eta koblakariak honela erantzun zion euskaraz: “Bai, etzükezün bekhatü” (Bai, ez zen bekatu izango).

Epaimahaiak (juré), ordea, ez zion berdin iritzi eta, beti Lhanderen arabera, orduan egin behar izan zituen “bi urte presondegian” Ajenan (Agen-en) edo “hamar urte galeratan”, bere poemetan dioen bezala.

---

(1) Errudun, kulpadun. (2) Baina kobra dezakek oraindik hartzekoa, hots, hire merezia. Lhande-Basagaitzen testuan “küpero” ageri da, baina badirudi hutsegitea dela.

Tradizioa ere bada herritarren artean, Agengo gartzelatik (presondegitik) ihes egitea ardietsi (lortu) zuela. Barkoxetik hurbil iratzebaileak topatu zituen eta Etxahunek aditzera eman zien Hegiaphalia erretzeko xedea (asmoa) zuela. Hegiaphaltarrak, hau jakinik salatarien bidez, erne egon ziren eta ez zen, mementuz, deus ere gertatu. Baina, denbora luzerik gabe, gau batez, Hegiaphalia suak hartu zuen eta ogena (errua, kulpa) Etxahuni egin zioten. Baina, aldi hartan, Etxahun Santa-Graziko mendietan edo, Xiberutarrek esan ohi dutenez “bortietan” zegoen artzain eta berarekin zeuden lagunak lekukotzak salbatu zuen Etxahun, zeren hauek deklaratu baitzuten arrats hartan, gauean eta hurrengo goizean bere “olha”tik ez zela mugitu Etxahuniako Pierra Topet.

Hirugarren partean Etxahunen bizitza erratua aditzera ematen du Aita Lhandek. Lehenik Jundane Jakara joan zen, etxekoek ez baitzuten on-artu nahi bere egoitzan presondegitik atera ondoren, “eta bi urtetan miserian bizi izan zen Espainian”. Jundane Jakatik jinda (etorrita), berriz ere saiatu (entseatu) zen etxen onartzen ote zuten. Dena alferrik, berriz ere atea hertsia (zerratiak) aurkitu baitzuten. Soilki bere emazteak, urrikaldurik, “bi athorra xiloeki” eman zizkion. Zuberoako egonaldi hartan gaiak (gauak) “sabaietan hotzez ikhara” iragan ondoren, Erromaruntz abiatzen da pelegri jantzirik. Bere pelegri ibil-aldiez erraiten digu salakor:

*Izan nüzü Loretan,  
Jakan eta Erruman,*

*Aita Saintiren meza entzün kardinalen kunpañan:  
Arropak txar nütian eta ihurk etzeitan deüs erran.*

Berriz ere Xiberurat itzuli eta etxeko atea hertsirik (zerratürük) topatuz, eskean hasi behar izan zuen hotzak eta miseriak pasatuz. Gero, artzaingoan (artzantzan) hasten da Zuberoako “olhetan” eta hor kurritzen ditu Idorroki, Igelu, Unhürritze eta abar. Zahartu zelarik, haurrei irakurtzen eta Khiristi (kristau, giristino) dotrina erakusten aritzen zen eta tabernetan, ezteietan eta festetan bertso kantatzen. Honela ateratzen zituen sos batzuk bizi ahal izateko.

“Ez dakigu —dio Lhande-Basagaitz Aita jesuitak— noiz sartu ahal izan zen Etxahun bere etxean. Dakiguna hauxe da: bere bizitza dohakabearen azkenetan, Etxahuniara itzuli ahal izan zela. 1862-ko Urtarrilaren 17-an hil zen, goizeko zortziretan, *züzülü*-an (zizailuan) etzanik, hots, oraindik ikus daitekeen zurezko banku luzean. Bere hilobia Barkoxeko hilerrian datza, sarreratik (sartzetik) hamabost urratsetara, ezker (ezkerretara), zuhain-nigarregile bakartiaren ondoan. Hartziko gurutzeak iskrribapen hau darama harxilatuan, erliebean alegia: “Ci git Pre. Topet Etchehon decedé le 17 Janvier 1862 âgé de 76 ans” (Hemen datza Pierre Topet Etxehon, 1862-ko Urtarrilaren 17-an hila, 76 urtez).

Hona, laburturik, Aita Lhanderen kontakizuna. Esan behar ote da zer nolako zarrasta eta bihotz-ukitua egin zidan Etxahunen istorio honek neure hogeitetsutan? Berehalaxe pentsatu nuen elaberri bat (roman bat, nobela bat) egiteko oinarri zoragarria zela eta zerbait egiteko ere gogo jarri zitzaidan barruan, baina zerbait egiteko, pertsonaia eta bere ingurua hobeki ezagutu beharra zegoen, eta nik aldi hartan ez nuen fitxik ezagutzen ez Xiberua eta ez beronen mintzaira ezti eta ederra. Halaber ez nizun ezagutzen Etxahun poeta bezala. Soil-soilki Lhande-Basagaitzek aipatzen zituen ahapaldi edo bertso lerro batzuk. Guztihau 1940 urte inguruan zen. Beraz, nola ikas Etxahunen berri gehiago, deus ez baze- goen publikaturik? Baina, bospasei urte geroago “Le poète Pierre Topet dit Etchahun (1786-1862) et ses oeuvres” liburua atera zen, Pierre Lhandek eta Jean Larrasquetek eginik eta “Eskualzaleen Biltzarrak” argitaratu- rik, 1946-garren urtean. Nire frantses eta ziberutar mintzo eskasarekin, liburua irentsi nuen. Azkenik, banekien zerbait gehiago Etxahun misteriu- tsu hartaz eta bere obrak. Behin eta berriz irakurritz haren bizitza eta lanak, hiztegia eskuartetik utzi gabe, Etxahunen berri ongixko (ongi xamar) ikasi nuen. Baina, hala ere, zenbat hutsune eta esaldi ulerkaitz (konprendigaitz) gure koblakariaren bertsoan! Zorigaitzez, ordea, egileek ez zuten frantseserat itzuli Etxahunen bertso-lana —hauxe da Lhande- Larrasketen liburuaren hutsegite izugarria xiberutar ez direnek ongi uler (konprendi) dezaten— eta honek ateak isten (zerratzten) zizkidan bertsoen esanguraren (erran-nahiaren) barne-muinetara sartzeko.

Nola moldatu, beraz, Etxahunen bertsoen barne ezkutu eta misteriu- tsuen berri jakiteko? Gramatikak, hiztegiak eta aditz liburuak ez zitzaizki- dan aski Etxahunen bertso ilunak ulertu ahal izateko. Bat-batean, ezagu- tu berri nituen bi adiskide gogoratu zitzaizkidan: Johaño edo Jon (1) Mirande-Aiphasorho eta Txomin edo Dominique Peillen, Parisko Zube-

---

(1) Niri egindako lehenbiziko urtetako gutunetan beti “Jon Mirande” sinatzen zuen, gure arteko abertzale-jelkideen ohiturari jarraiki, “Jon” Sabindiar izena onartuz, baina gerora, Sabindiartasun kutsadura hoztu zitzañolarik, nahiz “Johaño” xiberutar izenez, nahiz Jean etxeko frantses izenez sinatzen zituen bere gutunak. Albaina, literatura alorrean “Jon Mirande” izenez ezagutua da eta horrela errespetatuko dugu, berari azken urtetan “Joha- ñe” edo “Jean” atseginago bazitzaion ere. Niri ere halatsu gertatu zitzaidan ene bizian zehar, zeren gaztezaroran (gaztetan) Sabindiar dotrinez kutsatu bainintzen asko edo gutxi eta berehalaxe “Yon” erabiltzen hasi nintzen “Juan” izenez bataiatua izanarren eta orok (denek) Sabindiar izenez deitzea nahi nuen. Ezkondu aitzin (aurretik), lagunartean, horrela deitzen ninduten gehienek (nahiz eta neure etxeko izena “Juanxo” izan beti) eta ezkondu nintzelarik, andrearen familian “Yon” izenez sartu nintzen eta ene emazteak beti horrela deitu izan nau. Gerora, tentaldi gogorak izan nituen “Yon” utzi eta ezagutuberri nuen “Joane” euskal-izen zahar eta jatorra onartzeko. Baina berandu zela iritzi nion eta ez nintzen ausartu. Izan ere, bazter orotan eta baitapat literatura alorrean “Yon” izenez ezagutua bainintzen. Gainera, *Joane*, *Johaño*, *Joanes*, *Yon*, *Juan* edo *Jean*, deitu nahi diozuen bezala saildu izen honi, ez da sekula neure gogoko izan. Nik bataioan aukeratzetik izan banu, gaurko pentsamoldearen arabera, Antxiko Xabier hautatuko nuke.

rotar euskaltzale famatuak. Biek lagundu zidaten aunitz (hanitx), baina batez ere Jon Mirandek. Honek, eskutitz (gutun) bakoitzean esaten zidan galdetzeko nahi nuen guztia, poz-pezik lagunduko ninduela-eta. Horrela joan nintzaion galderak eginaz eta berak izagarrizko egonarriz eta xehetasunez erantzuten zidan, gai bakoitza oparotsu garatuz. Orduan pentsatu nuen hainbeste aberastasun Mirande eta bion artean gelditzea penagarri zela eta ideia ausarta bat izan nuen: Etxahunen bertsoak gipuzkerara itzultzea hitz-neurtuetan, Miranderen eta Peillenen erakuspen ederrak gal ez zitezen eta Etxahunen ahapaldi ulerkaitzak euskaldun guztiok konprendi, dasta eta kanta ahal zitzen.

Horrela hasi nintzen gipuzkeraz edo gipuzkera osotu batean jartzen Etxahunen bertsoak, baina, behin eginez gero, argitara eman behar zen jendearen ezaugarri, eta horrela gutun bat egin nion Zornotzako (Amorebietako) Aita Onaindia Karmeldarrari beren "Olerti" izeneko euskalpoesiaren aldizkarian argitaratuko ote zizkidan Etxahunen koblak zuberotarrez eta gipuzkeraz. Harek baietz, eta igortzeko nahi nuenean. Horrela igorri nizkion Lhande-Larrasketen liburutik aldatutako honako hauek: Ofizialenak (1961); Elhartxü eta Biñau (1962); Gaztalondoko neskatilen (1962); Sarrantzeko sentoralak (1963); Oraiko neskatilak (1963); Gaztalondoko handian (1963); Barkoxeko eliza (1963); Musde Tiraz (1963); Bi ama-alhaba (1964); Bi ahizpak (1964); Idarroki olha (1964); Belhaudi bortietan (1964); Ahargo eta Kanbillu (1964); Montebideorat juailiak (1964); Bi berset horiez (1964); Ahaide delezius huntan (1964); Bi berset dolorusik (1964); Hauzen bada laborari (1964); Maria Solt eta Kastero (1964); Mündian malerusik (1965); Gaztalondoko prima (1965); Defis (1965); Bi berseten huntzera (1965); Khantoren khantatzeko (1965); Urz'aphal bat (1966); Filipeñekuak (1966); Amodiogati (1966); Hiltzerako khantoria (1966); Etxahun eta Otxalde (1966); Musde Hegobe (1966); Sohütako eztieta (1966); Gaztalondoko prima (eraskina) (1966); Ahargo eta Kanbillu (eras-

---

Eta "Joane" edo "Johañe" euskal-izenaz ari garenez gero, aditzera eman gura dut "Euskera" aldizkarian (XXX, 1985, 2), *Euskal-pontizen zahar batzuk aztarrikatuz* tituluz argitaratu nuen lan batean, "Joane" izenari dagokionean, Aita Larramendiren pasarte zoragarri bat ahanzi zitzaidala ematen. Hona zer dioen Andoaingo Jesuita ospatsuak bere "Corografía de Guipúzcoa" liburu zoragarrian 1754-garren urtean. Berak diotsagunez, Murillo Velarde historialariak bere "Geografía Histórica" delako liburuan, *De las provincias de Vizcaya, Guipúzcoa y Alava* kapituluak dakartzan hutsegite frankoren artean, guri dagozkigun hauek aipatzen ditu: "Dice de San Sebastián que los naturales le llaman *Dombastia*, y no le llaman sino *Donostia*, que quiere decir San Sebastián, como *done Joane*, San Juan; *Donestebe*, San Esteban. *Bastia* y *Bastian* dice el vascuence por Sebastián, *Donebastia* o *Bastián* por San Sebastián, y sincopado *Donostia*". Hona hemen, beraz, beste lekuko baliotsu bat "Joane" euskal-izen zaharraren alde eta halaber "Donostia"ren faboretan, zeren oraindik ere baibaitago egoskorrik franko "Donosti" sasi-izena erabiltzen setatzen direnak. (Ikus "Corografía de Guipúzcoa", Editorial Vasca "Ekin", 12-gn. paia, Buenos Aires, 1950).

kina) (1966); Oraiko neskatilak (eraskina) (1966). Denak ote daude? Baietz uste. Ezezkoan, barka.

Baina edizio honetan inprimeriko hutsegite ikaragarriak atera ziren. Frogak ez nituen nik zuzentzen, "Oleriti"ko froga-zuzentzaileak baizik eta segurki behin bakarrik zuzenduta ontzat ematen zuten.

Beraz, Etxahunen bertso-lana argitaraturik, neure sufrimendua haundiagotu zen eta ez zitzaidan beste erremediorik gelditu liburu bezala atera baizik. Beste problema: ez nuen editorerik aurkitu. Gogoan har 1966-1969 urtetan ginela, denbora txarrak eta zailak oraindik euskal-liburuak ateratzeko, baitipat estudio-liburuak, eta nirea hala izaki. Gaur bertan horrelako liburu batek irakurlego txit mugatua dizu. Banekien biziki zaila zela neure liburua aitzina ateratzen, baina barruan neraman minaren-minez, ez nuen beste erremediorik izan nik dirua jarri eta neure kontura atera baizik. Salketa eta zabalketa ere nire kontura. Ez nekien ondotoxo (huntsa) zer zama leporatu nuen ene gain. Honelaxe atera zen "Etxahunen bertsoak gipuzkeraz" liburua Jon Miranderen lankidetasunez, Zarautzeko "Itxaropena" inprimategian, 1969-garren urtean. Urte berean Jean Haritxelharrek, Etxahunen bizia zeharo eraberriturik atera zuen berak egindako aurkikuntza berriez baliaturik. Denok dakizue Etxahunen bizia irauli zuen liburua izena: "Le poète souletin Pierre Topet Etchahun (1786-1862)". Etxahunen kobla berriak ere aurkitu zituen Haritxelharrek, Lhande-Larrasketen liburuan ageri ez direnak alegia eta, horrela, geroxeago, 1969-1970-ean "L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun" atera zuen. Neure bi liburu hauekin, hainbeste izerdiz ateratako liburu —etxez-etxe saltzen ibili behar izan bainuen Gipuzkoa guztian dirurik ez galtzeko— zeharo gibeleratua gelditu zen. Jakin izan banu Haritxelhar zer ari zen prestatzen, segurki ez nuen argitaratuko "Etxahunen bertsoak gipuzkeraz". Dena den, gaur ez naiz damu argitaratuaz, zeren-eta "Oleriti"ren argitalpenarekin sarturik nuen arantzea atera baitut, eta hainbeste nekeren frutu baita!

Baina, jakina, Haritxelharren bi liburu lodi-mardulak ezagutuz geroztik, Etxahunen biziaz eta lanez hainbeste gauza berri jakinaraziz, ene baitako atsedena, deskantsua, galdurik nuen berriro. Harez geroz beharrekoa zen Etxahunen koblak Haritxelharren arabera ematea, eta orduan pentsatu nuen testua, alegia, azalpen lan oro gaztelaniaz, espainolez ematea eta bertsoen itzulpenak gipuzkera batuan (gero, euskara batuan), hitz neurtuetan eta gaztelaniazko itzulpena prosan, hitz neurtu gabetan. Horrela, Etxahunen izena eta lana, Euskalerrian ez-ezik espainolez mintzo den mundu zabalean ezagutua izan baitzitekeen. Era honetan, euskara, frantsesa edo gaztelania, espainola, dakien edonork ezagu lezake Etxahunen bizitza eta obra.

Beraz, ideia hauek buruan, ate-joka hasi nintzen zenbait aldizkaritan, urteak eta urteak iraun behar zuen lan hau argitaratzeko. B.R.S. B.A.P.

delakoak zabaldu zizkidan atea berehalakoan 1973-garren urtean. Harez gero Etxahunen kobla hauek argitaratu dira Boletín honetan: 1973, Mendiko herrian; 1975, Igaran Sen Bladiz eta Khantoren khantatzeko; 1976, Khantore berria eta Üdoien prozesaren khantoriak; 1977, Bi berseten egitez eta Phixtako olha; 1978, Ofizialenak eta Etxahunen bizitziaren khantoria; 1979, Gaztalondoko neskatilak eta Belhaudiko bortian; 1980, Barkoxeko eliza eta Musde Tiraz; 1981, Mündian malerusik; 1982, Maria Solt eta Kastero, Sarrantzeko senthoralak eta Bi ahizpak; 1983, Ahaide delezius huntan, Gaztalondo handian, Oraiko neskatilak eta Musde Def-fis; 1984, Sohütako ezteietan, Urx'aphal bat, Amodio gati, Ahargo eta Kanbillu, Hauzen bada laborari eta Idorroki olha; 1985, Montebidorat juailiak, Gaztalondoko prima eta Bi ama alhaba; 1986, Gure jaun aphez-küpia, Musde Clérise, Musde Legouve/Musde Hegobe eta Bi berset dolorusik (inprimategian). Beste zenbait prestatzen ari naiz, hala nola Filipeñekuak, Jinkuaren Maniak, Arengaraiko primaren khantoria, Musde Renaud, Hiltzerako khantoria eta Musde Xaho. Galharragako khantoria eta Eihartxe eta Miñau azkenerako utzi ditut zailtasun bereizi-bereziak dituztelako. Beraz, Haritxelharren sailetik zortzi falta zaizkit, baina nik Lhande-Larrasketen *Etxahun eta Otxalde* ere sartu nahi nuke, berorretan Jon Mirande neure adiskide haundia zenaren erakuspide ederrak ageri direlako eta berarekin zordun haundia naizelako. Beraz, oraindik urte batzutarako lana...

Horra, ba: Etxahunen bizitza eta lanak frantsesez —Haritxelharrek— emanik gelditu dira eta ni euskara batuan eta espainolez (gaztelaniaz) ematen ari naiz. Hiru itzulpen hauei esker miloika pertsona izanen dira Etxahun ezagu dezaketenak. Ateak zabalik daude ikasi nahi duenarentzat eta beharrekoa zen munduari aditzera ematea Etxahun nor zen.

Nik, ordea elaberri -roman edo nobela— bidez ere ezagutarazi nahi izan nuen Barkoxeko koblaría, alegia tradiziozko bere bizian oinarriturik, baina irudimen hegoz jantzirik, eta horrela iskribatu nuen “Joanak Joan” elaberria (romana, nobela) eta Zarautzeko Itxaropena Argitaldariak “Kuliska Sorta” sailean plazaratua (kaleratua) 1955-garren urtean. Ongi saldu zen, baina nik ez nuen argitaratu nahi izan berriro zegoen-zegoenez, hutsegitez, ez-jakitez eta pobretasunez mukuru zegoelako. Eta arazoa —Etxahun eta bere bizigiroa— hobeki estudiatu ondoren, Gipuzkoako Probintzi Aurrezki Kutxak argitaratu zidan berriro 1980-garren urtean. Edizio hau berehala akitu (agortu) zen eta astirik galdu gabe hirugarren iraztaldia (iskribaldia) prestatu nuen, bigarreneko zenbait hutsegite zuzenduz eta xehetasun osatuz. Donostiako EREIN editorialak argitaratu dit aurtengo (1986) udaberrian. Horra, bada, gure Etxahun maiteaz esan gura (nahi) nituenak bere sortzearen bigarren mendeurrenean.